



GAZTELEKUko Arauak, 12-18

Gazte-gunea Altzoko gazteei 12 eta 18 urte bitartekoei zuzendutako udal zerbitzua da.

Elkargune bat da, gazteek euren eskakizunak eta ekimenak sortu eta garatu ahal izateko.

12 urtez beherako haurrek Udaletxe azpiko lokala (Jolasleku estalia) erabili ahal izango dute.

Altzoko udalak gazteen esku jartzen duen ekipamendua da, gazteen interesekoak diren jarduerak garatzeko eta horientzako baliabide ezberdinak eskaintzeko mahai-jokoak, aldizkariak argitalpenak, joko haundiak: pinpon mahaia, mahai futbola....

1.- SARBIDEA ETA ORDUTEGIAK:

1.1.- Doako zerbitzua eta sarbide librekoa da erabiltzaileentzat, betiere ez bada kontrakorik adierazten udal hedabideetan, jarduera bereziren bat egiteko.

1.2.- Gazte-guneak irekiera ordutegi hau izango du:

-Astelehenetik- ostiralera 15:00tik 22:00era

- Larunbat eta Igandetan 10:00tik 22:00era

1.3.- Udalak eskubidea dauka ordutegiak eta jarduerak aldatzeko, betiere denen onerako bada eta gainerako udal jardueren funtzionamendu egokirako.

2.- ZERBITZUEN ERABILERA eta ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

2.1.- Erabiltzaileek errespetuzko eta duintasunezko tratua izan beharko dute bai Gazte-guneko gainerako parte-hartzaileekiko eta baita bertan sartzen den edozein pertsonarekiko ere (garbitzailea, gurasoren bat...)

2.2.- Zerbitzu honen erabiltzaileak instalazioen, ekipamenduen eta Gazte-guneko gainerako materiala zaindu beharko ditu, eta berauek gaizki erabiltzetik sor daitezkeen hondatzeak saihestuko ditu.

2.3.- Lokal barruan ezin da patin eta patineterik erabili.

2.4.- Gazte-gune barruan ezin da jan, erre edo alkohola edan.

2.5.- Norberaren gauzak zaintzea gomendatzen dugu, izan ere Gazte-guneak ez ditu bere gain hartzen lapurretak eta galerak.

2.6.- Gazte-gunean liskarrak edo kalteak eragiten dituzten erabiltzaileek, edo gainerako erabiltzaileekiko eta langileekiko behar den errespetua agertzen ez dutenek, Altzoko udalak har ditzakeen eta egoki ikusten dituen neurrietara egokituko dira, Gazte-guneko funtzionamendu egokia bermatze aldera. Neurri horietako bat da pertsona bat Gazte-guneko erabiltzaile izateari uztea, Udalak egoki irizten dion denboran.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

2.7- Udaletxeak edozein momentutan egin dezake ezusteko bisita.

2.8- Gazteek, gazte guneko txartel bila udaletxera etorri behar dute, guraso edo arduradunen batekin, eta ordenantza hau sinatu beharko dute konpromisoa erakutsiz. Txartel hau galtzen edo hondatzen duenak 5€ ordaindu beharko ditu.

2.9- Bertako kideren batek 18 urte betetzen dituenean txartela itzuli egin beharko du.

2.10- Kanpoko atea eta pertsiana itxita utzi behar dira barruko lokaletan inor ez bada gelditzen.

Arau hausteei dagozkien zigorrak hauek dira:

Udal batzordeak erabakiko du arau hausteen larritasuna. Honako hauek izan daitezke:

ARAU HAUSTE MOTA	ZERGATIA	ONDORIOA
Arau hauste ARINA	Zehaztu gabe	Jakinarazpen bat izango du
Arau hauste LARRIA	Bi arau hauste arin, errespetu falta sesio edo kalteak eragiteagatik eta arauak ez errespetatzeagatik.	Gazte guneko kide izateari uztea eta eragindako kalteak ordaintzea
Arau hauste OSO LARRIA	Gazte gunean kalte larriak eragitea, sesio garrantzizkoak eragitea	Gazte guneko sarbidea galaraztea eta eragindako kalteak ordaintzea

Altzoko Udalak 2012-01-31an onartuta



GAZTE-GUNEKO ERABILTZAILEA IZATEKO ESKAERA ORRIA ETA ARAUDIA BETEKO DELA AZALTZEN DUEN ZINPEKO AITORPENA

Dokumentu honetan adierazten dira arau hausteei dagozkien zigorrak:

Udal batzordeak erabakiko du arau hausteen larritasuna. Honako hauek izan daitezke:

ARAU HAUSTE MOTA	ZERGATIA	ONDORIOA
Arau hauste ARINA	Zehaztu gabe	Jakinarazpen bat izango du
Arau hauste LARRIA	Bi arau hauste arin, errespetu falta sesio edo kalteak eragiteagatik eta arauak ez errespetatzeagatik.	Gazte guneko kide izateari uztea eta eragindako kalteak ordaintzea
Arau hauste OSO LARRIA	Gazte gunean kalte larriak eragitea, sesio garrantzizkoak eragitea	Gazte guneko sarbidea galaraztea eta eragindako kalteak ordaintzea

Eskatzailea:

NAN:

Jaioteguna eta adina:

ESKAERA: Goiko aldean izendatzen denak, bere guraso bat aurrean dela, Altzoko Udalak eskola azpiko lokalean antolatu duen Gazte guneko partaidea izatea eta bertara sartu-irtenak egiteko txartela eskatzen ditu. Eta baldintzak betetzen dituen jaso du giltza.

ZINPEKO AITORPENA: Eskatera egiten duenak, bere guraso bat aurrean dela, Altzoko Udalak 2012ko urtarrilaren 31an egindako Osoko Bilkuran onartutako Arautegia, "Gazte gunea arautzen duen Ordenantza" ezagutzen duela eta beteko duela aitortzen du.

Altzon,.....an

Sinadurak: